

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

142. zenbakia

Data 2006-07-27

18075 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Kulturaren kontseilu aholkulariaren funtzionamenduari dagokion erregelamendua behin betirako onartzea. Akats zuzenketa.

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Idazkaritza Orokorra

Akatsen zuzenketa. Behin betiko onartzea Donostiako Kultur Kontseiluaren Araudia.

Ikusgai jarrita izan den denboran ezeren alegazio eta iradokizunik izan ez denez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua eta handik aurrerakoek jartzen dutena aintzakotzat hartu eta behin betikotzat jo da Udalbatzak 2006ko martxoaren 28an egin zuen bileran hasi bidez onartu zuen Donostiako Kultur Kontseiluaren Araudia, eta, hala, 2006ko ekainaren 27an egindako bileran eman zaio behin betiko onartu izan horren berri Udalbatzari.

Isilbidezko onarpen hori behin betikoa da. Era berean, erabaki horrek buru eman dio administrazio bideari, eta, beraz, Euskadiko Auzitegi Nagusira jo, Administrazioarekiko Auzitarako Sailera, eta administrazioarekiko auzia jartzeko eskubidea dago, honen iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabete joan baino lehen, hala jartzen baitute 29/1998 Legearen 10 eta 46. artikuluek, Administrazioarekiko Auzibidearen Jurisdikzioa arautzeko legekoek.

Era berean, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua agintzen duenez, Araua oso-osorik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera beste hamabost egun pasatutakoan izango da indarrean aldaketa.

Donostia, 2006ko uztailaren 7a.—Udalbatzako Idazkari Nagusia.

(5424) (7837)

DONOSTIAKO UDALEKO KULTUR KONTSEILUAREN ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA

Donostiako Gobernuaren programan ezarritako helburu nagusietako bat, Plan Estrategikoan ere jasotzen dena, Donostia «kultur hiri» gisa garatzen laguntzea da.

Horretarako, kultur proiektu handietan asmatu behar dugu, bai eta gure kultur eskaintza osatzen laguntzen duten ekimenak bultzatu eta sektoreko herritar erakundeen eta enpresen laguntza lortu ere. Horretaz gain, auzoetan diren oinarrizko kultur zerbitzuen sarea handitu behar dugu.

Donostiak ahalmen handia du eta, horri esker, proiektu enblematiko berriak martxan jarri ahal izango ditu, hala nola, Victoria Eugenia antzoki birgaitua, Tabakalerako Gaur Egungo Kulturaren Nazioarteko Zentroa eta San Telmo museoaren birgaitze eta handitzea. Beste hainbat proiektu ahaztu gabe: Akuarioa handitzea, Santa Teresa komentua, Aieteko kultur etxe berria, Altzako Casares baserria handitzea, e.a.

Eragile askok parte hartzen dute kultur munduko ekintzetan, publikoak izan zein pribatuak izan. Badira erreferentzia izaten diren itzal handiko erakundeak lan handia egiten dutenak kultur sustapenean eta Donostiaren garapen zibikoan, Udalaren ekimenak osatuz. Bestalde, gaur egun gure hirian egiten diren kultur jarduerak askotarikoak dira, kultur aniztasunaren adierazgarri.

Kultur bizitzaren ezaugarri horiek, batetik, eta herritarrek beren interesetan eragina duten ardatz nagusiei buruzko eztabaida eta erabakietan parte hartzea sustatzeko hiriko Gobernuak egin duen apustuak, bestetik, parte-hartze tresna irekiak sortu behar izatera eramaten gaituzte. Tresna horiek aholku-emaileak izan beharko

dute eta «Donostia, kulturaren hiria» helburua gauzatzeko sortzen diren proiektu eta programei buruzko eztabaida bideratzeko balio.

Une hauetan eztabaida handi bat egin behar da gizartean hainbat gai dela-eta, hala nola, Tabakaleraren etorkizuna, Victoria Eugenia antzokiaren papera, San Telmoren edukiak, auzoetako kultur etxe berriak eta garrantzi handiko beste gai batzuk. Horrek mahai gainean jartzen du Kontseilua sortzeko beharra. Izan ere, herriko eragile eta erakundeak albo batera utzita taxutzen diren kultur proiektuek ez dute asko laguntzen hiri baten kultur eta gizarte ehuna sendotzen.

Bestalde, Kontseilua tresna eraginkorra izan daiteke kultur industrietan aberastasuna eta enplegua sortzeko betetzen duten papera bultzatzeko, bai eta kultur bizitza sozializatzen eta informazio eta komunikazio teknologia berriak denon eskura jartzen laguntzeko ere, teknologia horiek izanik kultur ezagupenak herritar guztien eskura jartzeko tresna baliagarria.

Halaber, Kontseiluak beste hainbat helburu izango luke: Ezintasunen bat dutenek kultur ondasun eta zerbitzuak erabili ahal izatea bermatzea eta kultur ekipamenduak eta jakintzarekin lan egiten duten erakundeak unibertsitateekin eta ikerkuntza zentroekin harremanetan jartzea bultzatzea, besteak beste.

Kulturaren Agenda 21ek dioenez, hiriak kultur aniztasunaren printzipioak agertzen dituzten lurraldeak dira eta, hiri barruan, printzipio horiek hainbat esparrutan islatzen dira: Askatasunean oinarritutako elkarbizitzan, demokrazian eta herritarrek erabakiak hartzean parte hartzean.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.Eratzea.

Donostiako Udalak, Donostia Hiri Hezitzailea den aldetik, aitortzen du kultur eskubideak herritarren eskubideen osagarri banaezina direla eta, haren ustez, gobernatze onak bete behar dituen printzipioetako bat herritarrek kultur politiken sorreran eta proiektu eta programak planifikatzen eta ebaluatzen parte hartzea da. Horrenbestez, Kultur Patronatuaren Estatutuekin bat, Herritarren Partaidetzako Araudian ezarritakoaren babespean eta kultur ekintzak Donostiarentzat duen garrantzi estrategikoa dela-eta, Kultur Kontseilua eratzen da.

2. artikulua.Helburuak.

Kultur Kontseilua sektorearen parte hartzerako organoa da, aholku-emailea, eta informatzea, eztabaidatzea, proposamenak egitea, kontsultak jasotzea eta aholku ematea ditu eginkizun, bai ekipamenduei dagokienez, bai kultur programazioari dagokionez eta baita euskararen erabilera Kulturaren arloan normaltzeari dagokienez ere. Gure kultur ereduaren kalitatea, sormena, berrikuntza, eskaintza, kohesioa eta sareko programazioa bultzatzea izango du helburu.

3. artikulua.Eginkizunak

Hona Kultur Kontseiluaren eginkizunak:

1.Donostia «kulturaren hiria»tzat hartzen duen eredia sendotzen duten proiektu, programa eta ekintzetarako organo aholku-emailea izatea, sektore estrategiko hori indartuz.

2.Hainbat arlotan Udalak aurrera eramaten dituen politikak eztabaidatzea, hala nola, kultur programazioan, baliabideen kudeaketan, ekipamenduen oinarritzko definizioan eta hiriaren kultur ondarearen eta tradizioen defentsan.

3.Kulturak, kultur enpresek eta unibertsitateek Donostian jokatzen duten papera sendotzea, Plan Estrategikoaren eta Kulturaren Plan Zuzentzailearen irizpideei jarraiki.

4.Kultur ondasun, zerbitzu eta ekintzen planifikazioan parte hartzea, honakoak bultzatzen dituelarik: Kultur ekoizpena, herritarren ahalmen sortzailea, adierazpide artistiko berriak bilatzea eta biztanleriaren sektore guztiek ondasun, zerbitzu eta ekintza horiek eskura izatea, inor baztertu gabe.

5.Ordezkaritzarekin eta kultur arloan eskumena duen udal entitatearekin batera lan egitea kultur eskaintzari buruzko txosten eta ebaluazio azterlanak sortzen.

6.Kultur arazoei buruz gogoeta egitea eta proposamenak sortzea udal organo eskudunari helarazteko.

7.Hirian den kultur aniztasuna garatzeko interesa duten erakunde publiko zein pribatuek aurrera eramaten dituzten ekintzak koordinatzen laguntzea eta immigrazioak ekarritako kultura desberdinetako pertsonen adierazpena eta parte hartzea bultzatzea.

8.Barne araudia onartzea eta aldatzea (eratzeko modua, jarduteko modua, jarraipena, bileren iraupena, bokalen akreditazioa), araudi hau errespetatuz, betiere.

9.Kulturako gaietan departamentuen arteko jarduera koordinatuari mesede egingo lioketen neurriak proposatzea.

10.Kulturako gainera eskumenak dituzten hiru erakunde mailen (gobernu, aldundi eta udal) arteko koordinazioari mesede egingo lioketen neurriak proposatzea.

11.Kulturaren Euskal Kontseiluarekiko koordinazio neurriak proposatzea.

12.Miarritzeko, Baionako edo Donostiarentzat interesgarri izan daitezkeen kultur politikak egiten ari diren Iparraldeko beste udal batzuekiko ekintza koordinatuak bideratu eta sistematizatzeari mesede egingo lioketen neurriak proposatzea.

I. TITULUA

KONTSEILUAREN ORGANOAK

4. artikulua.Osaera.

Kultur Kontseiluak honako organoak izango ditu:

a)Kontseiluaren Osoko Bilkura.

b)Lehendakaritza.

c)Idazkaria.

d)Lan Batzordeak.

e)Batzorde Iraunkorra.

5. artikulua.Kontseiluaren Osoko Bilkura.

Osoko Bilkura Kontseiluaren organo gorena da eta Kontseiluko kide diren pertsonak osatzen dute, hitza eta botoa dutela:

—Lehendakaria: Alkatea.

—Kulturako zinegotzi ordezkaria.

—Udal talde bakoitzeko ordezkari bana.

—Kultur etxeen erabiltzaileen eta hainbat ekintzetan parte hartzen dutenen artean zozketa eginda aukeratutako hiru ordezkari, Kontseiluaren lanetan esku hartzeko asmoa agertu dutenak.

—Foru Aldundiaren ordezkari bat.

—Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat.

—Espainiako Gobernuaren ordezkari bat.

—Plan Estrategikoaren ordezkaria.

- Gaur Egungo Kulturaren Nazioarteko Zentroaren Baltzuko zuzendaria.
- Nazioarteko Zinemaldiko zuzendaria.
- Musika Hamabostaldiko zuzendaria.
- Jazzaldiko zuzendaria.
- Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren ordezkari bat.
- Gipuzkoako Elkarte Artistikoaren ordezkari bat.
- Katalina Erasoren ordezkari bat.
- Artelekuren ordezkari bat.
- Koldo Mitxelenaren ordezkari bat.
- Chillida Lekuren ordezkari bat.
- Zientziaren Kutxagunearen ordezkari bat.
- Arte galerien ordezkari bat.
- Musika ikuskizunen sustatzaile pribatuen ordezkari bat.
- Donostiako antzerki taldeen ordezkari bat.
- Dantza klasikoaren munduko talde-entitateen ordezkari bat.
- Euskal dantzen munduko talde-entitateen ordezkari bat.
- San Telmo Museoaren Adiskideen Elkartearen ordezkari bat.
- Argazkilari Elkartearen ordezkari bat.
- Kutxaren erakusketa aretoen ordezkari bat.
- Udal Musika Eskolako zuzendaria.
- Musikeneren ordezkari bat.
- Kursaal Fundazioko lehendakaria.
- Akuarioko lehendakaria.
- Kultur enpresen sektorearen ordezkari bat.
- Aranzadi Zientzia Elkartearen ordezkari bat.
- Gipuzkoako Ateneoaren ordezkari bat.
- Euskal Aktoreen Batasunaren ordezkari bat.
- Euskal Idazleen Elkartearen ordezkari bat.
- EIZIERen ordezkari bat (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte).
- Eusko Ikaskuntzaren ordezkari bat.

- Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen ordezkari bat.
- Ibaiaren ordezkari bat (Euskal Herriko ikus-entzunezko ekoizpen-etxe independenteen elkartea).
- Editoreen Elkartearen ordezkari bat.
- Donostia Kulturako zuzendaria.
- Udaleko Gazteria Saileko zuzendaria.
- Euskararen Udal Patronatuko zuzendaria.
- San Telmo museoko zuzendaria.
- Unibertsitateen hiru ordezkari, unibertsitate bakoitzeko bana.
- Euskaltzaindiaren ordezkari bat.
- EHUren Udako Ikastaroen zuzendaria.
- Euskadiko Filmategiaren ordezkari bat.
- Rezola museoaren zuzendaria.

Inongo taldetako partaide ez diren kultur erakunde eta elkarten ordezkariak ere joan ahal izango dira bileretara, lehendakariak gonbidatuta, baldin eta Kultur Kontseilura joateko interesa erakutsi badute eta beren presentzia baliagarria bada, unean-unean aztertu behar diren gaietan duten esperientziatik. Horrelakoek txandaka parte hartuko dute bileretan, eta inoiz ez hiruk baino gehiagok bilera batean.

6. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkura osatzen dutenen eskubideak.

1. Kontseiluaren Osoko bilkura osatzen dutenek honako eskubideak dituzte:

- Batzarraldien eztabaidetan parte hartzea.
- Kultur politikari buruzko proposamenak planteatzea, 3. artikulurekin bat etorritz.
- Gai Zerrendako gaiei buruz informazio nahiz dokumentazio gehiago eskatzea, Kontseiluko idazkariaren bitartez.
- Botoa emateko eskubidea baliatzea.
- Eskaera eta galderak egitea.
- Osoko Bilkurako kide izateagatik dagokien beste edozein eginkizun betetzea.

2. Kontseiluko Osoko Bilkurako kideek ezin izango dute bere egin Kontseilua ordezkatzeko ahalmena, lehendakariari baino ez baitagokio, arau batek edo behar bezala hartutako erabaki batek berariaz ematen ez badie behintzat.

3. Lehendakariak Kontseiluaren jardun ona bermatzeko beharrezko eta egoki jotzen duen laguntza teknikoa, Udalarena zein kanpokoak, eskatu ahal izango du.

7. artikulua. Lehendakaritza.

1. Alkatea da Kontseiluaren Osoko Bilkurako lehendakaria.
2. Kultur zinegotzi ordezkariaren eskuetan utzi dezake Lehendakaritza.

8. artikulua. Lehendakaritzaren egitekoak.

- a) Kontseiluaren ordezkaria izatea.
- b) Ohiko eta ohiz kanpoko bileretarako deia egitea.
- c) Udal teknikariak eta erakunde eta elkarteen ordezkariak gonbidatzea.
- d) Gai zerrenda onartzea.
- e) Bilera burua izatea eta bileren garapena moderatzea.
- f) Herritarren parte hartzea bermatzea.
- g) Kontseiluaren ekimen eta proposamenak Udal Gobernuari eta Donostia Kulturari helaraztea, bidera ditzaten.
- h) Kultur Kontseiluaren eta Udaleko Gobernu eta Kudeaketa organoen arteko harremanak koordinatzea.
- i) Lehendakaria izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

9. artikulua. Idazkaria.

1. Udal idazkari nagusia edo hark izendatutako ordezkaria izango da Kontseiluko idazkaria. Bere egitekoak gauzatzeko Donostia Kulturaren egituran oinarrituko da.

2. Idazkaria ez da izango Kontseiluko eskubide osoko kidea Kontseilua eratzeko quorumari, gehiengoei eta bozketei dagokienez. Kontseilura gonbidatutako gainontzeko udal teknikariak ere ez dira eskubide osoko kidezat hartuko, ondorio horietarako.

10. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

Hona idazkariaren eginkizunak:

- a) Bileretara joatea.
- b) Gai zerrenda proposatzea lehendakariari.
- c) Bileren akta egitea.
- d) Deialdiak, gai zerrendak eta Kontseiluak sortutako dokumentazio guztia bidaltzea.
- e) Kontseiluak hartutako erabakiak bideratzea.
- f) Aztertzen ari diren gaien legezko alderdiei buruz aholku ematea, laguntza juridiko egokiak baliatuta, behar izanez gero.
- g) Idazkari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

11. artikulua. Lan Batzordeak.

1. Kultur arloko unean-uneko gaiak berariaz aztertzeko Lan Batzordeak eratu ahal izango dira, Kontseiluaren Osoko Bilkurak egoki jotzen duenean.

2. Haien osaera, izena eta funtzionatzeko modua Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabakiko ditu.

3. Lehendakariak beren lana betetzeko behar duten laguntza tekniko, Udalarena nahiz kanpoko, emango die batzordeei.

4. Batzordeek egindako lanen ondorioen berri emango diote Kontseiluaren Osoko Bilkurari.

12. artikulua. Batzorde Iraunkorraren osaera.

Kontseiluaren lehendakariak eta Osoko Bilkurako sei lagunek osatuko dute Batzar Iraunkorra. Sei lagun horiek Osoko Bilkurako kide izan behar dute, hango edozeinek proposa ditzake eta han diren edozein kolektibotakoak izan daitezke.

13. artikulua. Batzorde Iraunkorraren egitekoak.

1. Kultur Kontseiluko gaien ohiko izapideak egitea, Osoko Bilkuraren bilerarik ez denean.

2. Kultur Kontseiluaren egutegiak eta lehentasunak proposatzea Osoko Bilkurari, eta betetzen diren begiratzea.

3. Osoko Bilkurak agindutako beste edozein eginkizun.

14. artikulua. Ordezkapenak eta eskuordetzeak.

Kultur Kontseilua osatzen duten organoen titularrak ordezkatuak izan ahal izango dira, gaixotasuna edo justifikatutako beste arrazoi bat dela medio. Horretarako, idatziz izendatuko dituzte beren ordezkariak, eta eskuordetze idazki hori lehendakariari helaraziko diote, bilera hasi aurretik.

II. TITULUA

ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUA

15. artikulua. Ohiko bilkurak.

1. Kultur Kontseiluak sei hilabete behin egingo ditu ohiko bilkurak.

2. Batzorde Iraunkorrak hiru hilabete behin egingo ditu ohiko bilkurak.

3. Ohiko bilkuretarako deia zazpi lanegun lehenago egin beharko da. Deialdiarekin batera, gai zerrenda eta aztertu beharreko gaien laburpena bidaliko dira.

4. Kontseiluko lehendakariak egingo du deialdia.

5. Aztertu beharreko gai proposamenak deialdia egin baino hiru egun lehenago egon beharko du Kontseiluko idazkariaren eskuetan.

6. Kontseiluko lehendakariak, bere kabuz nahiz Kontseiluko edozein kidek hala eskatuta, gai zerrendan jasota ez dagoen edozein gai aztertzea proposatu ahal izango du, presa dela-eta, eta proposamena botoetara jarri, bilera hasi baino lehenago.

16. artikulua. Ohiz kanpoko bilkurak.

1. Lehendakariak beharrezkotzat joz gero, ohiz kanpoko bilkurak egin ahal izango dira. Eskubide osoko kideen bi herenek eskatuta ere egin ahal izango dira.

2. Ohiz kanpoko bilkurarako deia, eskaera egin eta bi lanegun iragan baino lehen egin beharko da eta bilera, berriz, bost egun iragan baino lehen.

3. Deialdia bilkura egiteko ezarritako eguna baino bost egun lehenago egingo da.

17. artikulua. Bilkura araubidea.

1. Lehenengo deialdian, Kultur Kontseilua eratutzat jotzeko eskubide osoko kideen erdiek eta bat gehiagok gutxienez agertu behar dute bileran. Bigarren deialdia ordu erdi geroago egingo da eta orduan Kontseilua eratutzat joko da, bileran den kide kopurua edozein dela ere. Nolanahi ere den, lehendakariak eta idazkariak edo beren legezko ordezkariak nahitaez egon beharko dute bileran.

2. Erabakiak bileran diren eskubide osoko kideen botoen gehiengo soilez hartuko dira.

3. Erabakiak gai zerrendako gaiei buruz eta presa dela-eta sartutakoei buruz hartuko dira.

4. Idazkariak bilkura guztien akta egingo du eta honakoak jasoko ditu bertan: Bileran izandakoen izenak, eztabaiden alderdi nagusiak eta hartutako erabakien edukia.

5. Aktak hurrengo bileran onartuko dira. Hala eta guztiz ere, idazkariak hartutako erabakiei buruzko ziurtagiriak eman ditzake, akta gero onartu behar bada ere.

18. artikulua. Informazio eskabideak.

Txosten jaso eta 30 egun baino lehenago erantzun behar diote udal zerbitzuek Kultur Kontseiluaren informazio eskabideei. Lehendakariaren edo idazkariaren bitartez egingo dira eskabideak.

19. artikulua. Aurreikusi gabeko egoerak.

Araudi honetan jaso ez diren kontu guztietarako, Udalbatzaren Organoen Araudian eta Herritarren Partaidetzako Araudian ezarritakoa bete beharko da.
